ENPRESA EKONOMIA SARRERA 10.GAIKO TEST-A 2025/11/28

IZEN-ABIZENAK: Uitar V. Ilarrubia N.A.N.: 73264559Z

HASI AURRETIK ONDORENGO ARGIBIDEAK ARRETAZ IRAKURRI

1.-BALORAZIOA: ONDO erantzundako galdera: 1 puntu.
GAIZKI erantzundako galdera: 0,25 puntu KENDU.
Erantzun GABEko galdera: 0 puntu.

IKASLEAK EZINGO DU GELATIK IRTEN ENUNTZIATUA ENTREGATU GABE.

BEHIN BETIKO ERANTZUNAK. ERANTZUN BAKARRA AUKERATU

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
d		d	e	a		c	b	a	b	d

1. Berreskuratze-epea edo Pay-Back-ari dagokionez, aukeratu erantzun zuzena:

a) Erabaki-araua egindako ordainketak ahalik eta arinen berreskuratzen dituztenak
b) Ez da errentagarritasun-irizpidean oinarritzen, likidezia-irizpidean baizik
c) Ez du kontutan hartzen diruaren balioa denboran zehar aldatu egiten dela
d) a eta c zuzenak dira
e) Aurreko guztiak zuzenak dira

2. Zein da BET-a erabiliz inbertsio bat erabakitzeko araua?

a) Enpresaren kapitalaren kostua baina BET altuagoa duten proiektuak onargarriak izango dira
b) BET BEG baina handiagoa bada inbertsioa onargarria izango da
c) BET positiboa bada inbertsioa onargarria izango da
d) Errendimendua kapitalaren kostua baina txikiagoa duten proiektuak onargarriak izango dira
e) BET negatiboa bada inbertsioa onargarria izango da

3. Barne Errendimendu Tasa (BET)-ari dagokionez, aukeratu erantzun zuzena:

a) Kapitalaren kostua baina BET txikiagoa duten proiektuak onargarriak izango dira
b) Errentagarritasuna urterokoa, gordina eta erlatiboa da
c) Errentagarritasuna absolutua, urterokoa eta gordina da
d) BET kapitalaren kostua baina altuagoa duten proiektuen kopurua handia denean, BET txikienetik handienera egingo da
e)Aurreko guztiak okerrak dira

4.- Inbertsio baten Barne Errendimendu Tasari (BET) dagokionez, aukeratu erantzun zuzena:

a) Errentagarritasuna termino absolutuetan neurtzen du
b) BET (r) = % 10 eta eguneratze-tasa (K) = % 7 badira, inbertsio-proiektua ez litzateke onargarria izango
c) Inbertsio-proiektu baten BEG (Egungo Balio Garbia) negatiboa bada, haren BET-a eguneratze-tasa baino txikiagoa izango da
d) BEG positiboa baldin bada, Pay-Back inbertsioaren iraupena baina gutxiago izango da
e) Inbertsio-proiektu baterako BEG eta BET metodoen emaitzak kalkulatzen badira, ez dute zertan gauza bera erabaki proiektua onartzeari edo ez onartzeari buruz

5. Aukeratu egiaztapen zuzena:

a) Inbertsio-proiektu onargarriak mugatzeko erabilitako irizpideak errentagarritasun-irizpideak dira, errentagarritasun handiena ematen digun inbertsioari helduz
b) Berriztapen edo ordezkapen-inbertsioak enpresak egiten dituen produktuak hobetzeko edo produktu berriak eratzeko egiten den inbertsioa da
c) Errentagarritasuna honako aldagaiek definitzen dute: hasierako ordainketa, kutxa fluxu garbiak eta arriskuak

d) Kutxa fluxu garbiak kalkulatzerakoan, kapitala propioa bada, aukera-kostua balioetsi beharko da
e) Aurreko guztiak okerrak dira

6.- Aukeratu erantzun zuzena:
a) Kutxa fluxu garbia kalkulatzean kontuan izan beharreko kobrantzak eta ordainketak inbertsio-proiektuarekin zuzenki erlazionatutakoak dira
b) Metodo dinamikoak ez dute kontutan hartzen kutxako fluxu garbien eta hasierako ordainketaren artean dagoen denboraldia
c) Inbertsioak aukeratzeko orduan metodo aktiboak eta metodo dinamikoak daude
d) Hasierako ordainketa kalkulatzean ez dira diru-laguntzak kontutan hartzen
e) BET-ak errentagarritasun absolutu garbia adierazten du

7.- Inbertsioak hautatzeko metodoei dagokienez, zein da erantzun zuzena?
a) BEG eta BET metodoek emaitza desberdinak eman ditzakete, baina aukeratu beharreko proiektua beti berdina izango da, aukeratutako metodoa edozein dela ere
b) Eguneratze-tasa (k) % 7 izanik, proiektu baten balio eguneratu garbia (BEG) 0 bada, haren Barne Errendimendu-Tasa (BET) % 7 izango da
c) Finantza-ikuspegitik, denboran zehar ematen diren inbertsio eta finantza-proiektuen multzo gisa uler dezakegu enpresa
d) b eta c zuzenak dira
e) Erantzun guztiak zuzenak dira

8. A proiektuaren berreskuratzen epea 3 urte da, B proiektuarena 2 urte eta C proiektuarena 2 urte eta 8 hilabete. Aukeratu hortaz, adierazpen zuzena:
a) A proiektua baztertuko genuke
b) Likidezia garrantzitsua baldin bada B proiektua hautatuko dugu
c) 3 proiektuen BEG-a positiboa izango da
d) Diruaren balioa kontutan hartzen denez Pay-Back kalkuluan, geroz eta lehenago berreskuratu hobeto
e) Aurreko guztiak okerrak dira

9. Balio Eguneratu Garbia (BEG)-ari dagokionez, aukeratu erantzun zuzena:
a) Inbertsio baten balio eguneratua kutxako fluxu garbi guztien balio eguneratua da
b) Kapitalaren kostua zehaztea erraza da
c) Errentagarritasuna termino absolutuetan neurtzen da
d) Aurreko guztiak zuzenak dira
e) a eta c zuzenak dira

10. Aukeratu baieztapen zuzena:
a) BEG, BET eta Pay-Back proiektuak hautatzeko osagarriak dira
b) BEG, BET eta Pay-Back inbertsio-proiektuak hautatzeko metodo dinamikoak dira
c) Pay-Back inbertsio-proiektuak hautatzeko metodo dinamikoa da
d) BEG, BET eta Pay-Back inbertsio-proiektuak hautatzeko metodo estatikoak dira
e) Aurreko guztiak okerrak dira

11. Aukeratu adierazpen okerra:
a) BEG-aren kalkuluan, kapitalaren kostua zehaztea zaila izan ohi da
b) BET balio eguneratu garbia 0-ra berdintzen duen deskontu-tasa da
c) BEG-a termino erlatiboetan neurtzen da
d) Bet-ak neurtzen duen errentagarritasuna urterokoa, gordina eta erlatiboa da
e) a eta c okerrak dira